

**ERREIÑU BISIGOTAREN ONDAMENA
EUSKO-GUDARIEN EKINTZA?**

VII mendeko gertakizunik miresgarriena musulmanen garaitza arrigarria izan zan¹. Mende ortan, Indo Ibaietik Marok'era eta Siri'tik Ejito'ra lurralde zabal luzearen jabe egin bait ziran Maoma'ren jarraillak. Ori, ordea, nola?, Maomatar aiek Arabi'ko lekaro latzeko semeak bait ziran. Kulturarik gabeko artzai txiroak. Borroka aundietarako batere prestakizunik gabeko basa-gudulariak. Gudarozte ikaragarriak garaituta, alako ta ainbeste lur arrapatu ondorean, lurralde aiekin Laterri bat eratu ta gobernatzeko iñondiko gaitasunik gabeak.

Gertakizun arrigarri orrek ordea badu azalpen egokia; ondo ezaguna gaiñera: ikus:

- IV mendearen asieran Kostantino Aundiak Inperio'ko uriburutza Erroma'tik Bizantzio'ra aldatu zuan, uri ori bere izenez bataiatuz: Kostantinopla. IV mende guztian eta bait V'ean ere Kostantinopla, "Erroma Berria", izan zan, Inperio osoko Uriburua. 476'ean Odoakro Eruldarrak Erroma Zarra artuz, Sarkaldean Erroma'ko Inperioa ezerezturik utzi zuan.

¹ Atal au, ortografizko akatsen billa Olazar'tar Martin Euskerazaintzako lendakariak irakurria dut. Ona, berari-buruz bidali didan iritzia: "Bixente: Atal polita ta jakingarria dok au nere ustez. Ondo josia be bai. Eta geiegi luzatu bagerik, argi idatzia. Atsegiñez irakurten dok. Zorionak eta aurrera!"

Kostantinopla'k ordea, "Erroma Berriak", Erroma'ko Inperioaren Sortaldeko zatiaren uriburu jarraitu zuan.

Arrezkero, ordea, Inperio Erromatar ari Inperio Bizantziotarra esan zitzaion.

- Ordurako, Siri —Palestina barruan zuala— eta Ejito, biak, Erromar-Inperioko probintzirik jendetsuenak, aberatsenak eta kulturaz dizdiratsuenak ziran. Gaizki ikusi zuten Kostantino'ren ekintza, Erroma bera bezain ederrak eta aberatsak eta kulturaz jakintsuagoak ziran Antioki Siri'ko uriburuak eta Ejito'ko Aleksandri'k.

- IV mendeko asarre ura egiazko gorroto biurtu zan V mendean. Eta, ortan, izan zuan zer-ikusi aundirik Kaltzedoni'ko Kontzilio Ekumenetarrak. Kaltzedoni Kostantinopla'ren auzo bat bezala zan. An egin zan Monofisikeria eskomikatu zuan Kontzilioa, ots, Kristo'k "monos fisis" edo "zertasun bat bakarra" duala, eta zertasun bakar ori Jainko-Zertasuna dala erakusten duan erejia, Jainkoa gizon egin zanean giza-zertasuna jainko-zertasunean, ardo-ttanta bat itxasoko uretan bezala, ezabaturik gelditu omen zitzaiolako.

- Monofisitak omen ziralako eskomikatuak izan ziran SIRI, PALESTINA eta EJITO. Eliz Orokorretik at gelditu ziran. Eta ala diraute gaur ere. Baiña ez dira, eta, agian, ez ziran orduan ere benetako erejeak. Guk bezala sinisten dute Kristo egiazko Jainkoa eta egiazko gizon osoa dala. Semantika, edo itzen zentzuaren ulerpenari-buruzkoa zan auziaren zatirik aundiena: Itzek zer esan nai zuten egoki ulertu aal izatea.

- I Leon "Aundia" zegoan Erroma'n Aitasantu. Bañan ez zan Kaltzedoni'ra joan. Beste bat izan zitekean Kontzilio aren amaiera Inperio Bizantziotarretik at beste uri batean, Erroma'n adibidez, egiña izan ba'litz.

Egin zan tokian egin zan ordea-ta izugarriki aunditu zuan orrek, Inperio bizantziotarraren aurka Siri, Palestina eta Ejito'ren

gorrotoa, gorroto-bide berri bat sortu bai zitzaien arrezkero lengo kultur-ekonomi-ta-politikazkoetaz gainera: erlijioarena.

- Ala, Musulmanak Palestina'ra aurrena, eta Siri'ra ta Ejito'ra bereala, iritxi ziranean salbatzailleak izan ba'litu bezala artu zitan ango jendeak: besoak zabalik!

- Adimen argiko Agintari yayoa izan zan lurralde aiek artu zituan I Omar Kalifa. Oartu zan berekin Arabi'ko lekaroetatik zekarren kultur-izpirik gabeko jende auntz-astota-gamelu-zain-talde arrek ez zuala balio ain lurralde zabal, aberats, dotore eta kultur bikaiñeko ura jaurtzeko, ots, gobernatzeko. Ta, ortarako, lurralde txukun aietako aristokrazi dotoreaz, ekonomilari trebeetaz, eta elizgizon jakintsuetaz haliatzea erabaki zuan.

- Ederki erantzun zioten auek: Erromaren lejiotako zenturio siritarrek eratu zioten zekarren gamelu-ta-aun-zai-talde ura, basaborrokalari urduri ta arriskutsu aiek egiazko gudarozte bikaiña biurtuz; musulman egin ziran —eta egin ez ziran jaurleri “erromatarrak” izan zituan aurreneko une aietan erriak jaurtzen jarraituz gainera erri aundi zabalak nola jaurtu Omar berari eta berekin Arabi'ko lekaroetatik etorritako buruzagi basatiarrei erakutsi zietenak; eta Siri, Palestina, ta Ejito'n, ain ugari ziran lekaidetxe oparoetako lekaideek itzuli zituzten arabierara, kultura murrizko jende aientzat, Grezi zaarreko kulturaren idazki guztiak; ta, “Gudu Santua” jarraitzeko, itxasontzi-kopuru naroa aurkitu zuten Siri'n, eta batez ere, Ejito'ko kaietan.

Or dago musulmanen lorketa ez-ain-arrigarri aien arrazoia: Siri, Palestina eta Ejito borrokarik gabe aien alde jarri izatean. Gero, an, lejiotako zenturioi beraiek eratutako ta bertako gizasemez aundiagotutako gudaroztearekin —askotan, musulman biurtutako edo ez-biurtutako “zenturion” beroiek gidari zituztela—, ez zitzaien lenen Kalifei, fanatikeri oro sortarazteko ain egokiak diran “gudu doneen” bidez, beren lurraldeetako mugak zabaltzea eginkizun zaillegia gertatu.

Arras garrantzi aundikoa izan zitzaien Lurrat'Itxasoko ugar-teak eta Itali'ren egoaldea arrapatzeko Ejito'n aurkitu zuten itxas-ontzidia. Eta, Afrika'ren iparraldeaz jabetzeko!

* * *

Baiñan Sortalde aren irabazketa baiño askoz arrigarriagoa da sarkaldean España Bisigota menderatu zuten era.

*“Las circunstancias que hicieron posible esta conquista relámpago, su espectacular carácter de **razzia** gigantesca han desconcertado siempre no poco a los historiadores de la Edad Media. Incluso hoy mismo la catástrofe que entregó al islam, no ya una comarca de Asia o de Africa, sino una parte de la misma Europa continental, sigue pareciendo a algunos especialistas un acontecimiento tan insólito y un fenómeno tan fuera del orden natural de las cosas que tienen que apelar para definirlo al MILAGRO histórico”².*

Ez da “milagro histórico”ren bearrik gertakizun orren azalpenerako, baiñan egia da erogarriki izan zala arrigarria:

A) - Etorrera arriskutsua eta arras txiroa izan zutelako. Tanjer eta Zeuta'n aurkitu zituzten txalupatzarretaz, -itxasertze-tik urrundu gabe kaitik-kaiera salerosketan aritzeko egiñak izan ziran- lau, soilki lau, txalupa aunditxo aietaz baliatu bear izan zuan Tarik'ek, eta lau txalupa aien joan-etorri asko bear izan zituan Zeuta'tik CHABAL-TARIK'era, ots, Gibraltar'era bere zazpi milla gudariak eramateko; ez bait zion AL-WALID Kalifak (705-715) Sortaldetik ontzi egoki bat ere bidali.

² Lerro oiek F. Lot'enak dira (“Les invasions barbares”, Paris 1937. Orria, 24'gna). Bere-egin zituan Lévi Probençal'ek, Menéndez Pidal'en zuzendaritza-peko “Historia de España”ren IV libururako idatzi zuan “España musulmana hasta la caída del Califato de Córdoba” deritzan atalean. Or, 1950'n Madrid'en argitaratutako IV tomo orren 11'grn. orrian, E. García Gómez'ek gazteleraturik irakurri dezakezu.

Kalifei ez zitzaien, ordurarte, itxasoz Europa'ra jauzi-egiterik bururatu. ABD-AL-MALIK (685-705) zan Damasko'n islamdar guztien Kalifa, 682'ren inguruan UQBA-BEN-NAFI buruzagi ospetsua Marok'en Atlantik'Itxasoaren ertzera iritxi zanean. Kalifa, ordea, España'ra jauzi egitearen aurka agertu zan. Ikusten bait zuan ekintza ark ero-ekintza baten itxura aundia zuala. Berdin jardun zuan aren ondorean aipatu-berri dugun Al-Walid'ek kalifak. Azkenean, zalantza askoren artean eman bait zion Afrika'ko Jaurleri izendatu-berria zen MUSA-ib-NU-SAYR gudalburuari, saio bat egiteko baimena. Onek, berriz, TARIK-ib-ZYRAD aukeratu zuan ekintza artarako buruzagi.

Aurretik, ordea, Tarif-ben-Malluk capitana bidali zuan kuskulari, eun zaldun eta irureun oiñezkorekin, kapitan onen omenez Tarifa esan zaion uri dagoan tokira, Andaluzi'ren egoalde artan gudu-ekintza gogorrago baterako era egokirik bai ote zegoan aztertu zezan. Bost illabete! ibilli omen zan, esan oi denez, inguru aietan Tarif, areriorik aurkitu gabe, eta aberastasun ugari, eta aberastasun ugari eramane omen zuan andik Afrika'ra. Eta, baita, neska-polit-atsegin-sorta-eder bat ere, beretzat bere agintarientzat eta Damasko'ko Kalifarentzat opari goxoa!

Aiñ gutxik aiñ asko eta aiñ azkar lortu zualako, benetan da miresgarria orduan España'n gertatua. Soilki 12.000, (berak ekarritako 7.000 eta, bere eskariari erantzunez, gero Musa ib Nusayr'k bidali zizkion 5.000') izan ziran bâ Tarik buruzagiak, ERRODRIGO Errege bisigota garaitu, Toledo Bisigoten Uriburura iritxi, uri au arrapatu, andik iparrera jo, Kantabritarren Amaya'ra sartu, ostera Toledo'ra itzuli, eta emen negua lasaitu igarotzeko, erabilli zituan gudulari guztiak.

Edestilari musulman batek idatzi zigunez, Guadalete'ko borrokan 10.000 gizonen osotzen omen zuten Errodrigo'ren gudaroztea. (Geitxo, bai noski, baiñan ortaz laister mintzatuko gera). Izatez, bisigoten gudaroztea askoz aundiagoa zan. 200.000 gudari eman oi zaizkio edesti-liburuetan.

¿Non ote zegoan egun artan Frankiarren aurka beti garaille irtetzeko gai izan zan bisigoten gudarozte bikaiñ ura?

¿Non ote zegoan ondorengo egunetan eta urte artako egun guztietan?

D) -. esan dezadan berriro: Arrigarria benetan Españi'n gertatua, ain gutxik ain azkar alako lurralde zabala arrapatu zutelako. 711'garren urteko Uztaillaren 19'an garaitu zuan Tarik'ek Errodrigo. An il zan, uste danez, Bisigoten Erregea. An il zan Bisigoten Erreiñua.

Bi illabete geroago, Urrillean, Tarik'en esanera MUGHITH Buruzagiak Kordoba artu zuan. Eta Tarik berak Toledo, bisigoten uri burua. Emendik irten da Guadalajara'n sartu zan eta agian baita Amaya'n ere, "cruzando una sierra no determinada" (id.ib. 15): "ezezaguna zaigun mendi-kate bat, —Iber-Mendien katea seguruaski— igaroz" (Ierro-artekoa, nerea).

Orixe bai, esan dugun bezala, egiazko "tximist-gudua"! Urrengo urtean, 712'an, Musa ben Nusayr 18.000 gudarirekin Españi'ra etortzerako menderaturik eta ezerezturik bait zegoan ERREIÑU bisigota.

Ariñ? Bai noski. Españi'ra etortzeko erabilli ziran itxas-ontzi txikietan ez zitekean intendetzi aundirik ekarri. Orregaitik, batere eragozpenik gabe lurrean arrapatzen zuanetik biziz eta aurkitzen zituan zaldi eta gaiñerako zamarietaz baliatuz, azkar ibiltzeko erarik egokienean aurkitzen zan Tarik. Orrek ordea milla aldiz arriskutsu ta galgarriagoa biurtzen zuan bere ibillera ausart ura. Non ote zegoan ordurarteko gudarozte bisigotiar beti garaillea?

"Tximistasun" orren azalpena billatzeko, gero mozarabeen artean sortutako kondairetara jo dute edestilariak: musulmanek aurrena, kristauak gero. Baiñan, "tanto unas como otras son leyendas son muy posteriores al siglo VIII, y los relatos que nos suministran son de una autenticidad sospechosa por lo menos" (Labe-Provincial o.c. 5). Ona edestilari guzti oien oiñarri izan diran kondairetako gauzarik jakingarrienak:

A): Errodrigo erregea bera.

“Cara a los grandes desastres de la historia, la opinión popular no descende a las causas múltiples y complejas que pudieron originarlas, sino que tiende a concentrar la responsabilidad en personajes concretos”. Id.Ib. 35 or.

Baiña ez dute edestilariak, ez arabitarrek ez kristauak Erregeaz zer gertatuta zan jakiterik lortu. Guadalete erreka-uren uretan ito omen zan, batzuek diotenez; uretan ez baiña Barbate ibaiaren lokatzetan, beste batzuen ustez. Badira, borroka-tokitik iges egin da, borrokan jarraitzeko asmoz, iparreruntz abiatu zala diotenak. Ez zaigu falta Kazeres eta Salamanka arteko Gata-Mendietan borrokalari ibilliz gero anerailla izan zala dionik; Azkenik, kondairari misterio-lurrin geiago erasteko, XI mendean Portugal'en agertutako illarri bat: *“emen datza Errodrigo Españi'ko bisigoten azken-erregea” omen zion illarri ura ere aipatu bearrean aurkitzen gerd³.*

B): Errodrigo'ren aurka Witizatarren aierkundera.

- Baiñan alkar ezin-ikusiak maiz gerta oi ziran len ere bisigoten artean.

- Oraingoko auek ez ziran noski ain larriak. Izan zirala egia **ba'litz** ere, deus kosta gabe, menderatu bait zituan Errodrigo'k, Akhila zeritzan Wititza'ren semearen aldeko igikunde guztiak. Ez du beintzat dokumentuetan oiñarri zindorik witizatarrek Errodrigo'ren aurka gudara jo zutela esan oi duan aburuak.

D): Witizatarrei barkatu egin ziela Errodrigo'k eta bere lagunartean artu.

- Ori, baleike; baiña, soilki, witizatarrek Errodrigo'ren aurka jeiki zirala egia ba'litz. Baleike..., naiz ori, etsaiari lepoa moztu-zale beroak ziran Bisigoten artean, arras arrigarria gertatu.

³ Erne, irakurleok! “Kondaira” itzak nere idazkietan beti-beti “leyenda” esan nai du. Itza, Larramandi'k asmatua da, “historia”, ots, “edestia esateko, baiñan ez du ortarako balio, “kondaira”, “edesti” ez baiña “leyenda” bait da: “lo que se cuenta”.

E): Barbate'ko borrokaldian Errodrigo'k bere gudaroztearen bi egalak Akhila'ren bi anairen zuzendaritzapean ipiñi zituala. Eta bi auek, borroka asi zanean musulmanen aldera igaro zirala. Baiña:

- Ori, Errodrigo iñozo-puska baldar aundi bat zala esatea litzake; Orrelako iñozokeria asmatu zutenek ere sinisten ez zuten gauza.

- Sinistaerazi nai zaigun Akhila'ren bi anai aien judaskeri ori ez da sinisteko gauza, bai bait zekiten musulmanek ordurako arrapaturik zeuzkaten lurraldeetan erabilli zuten jardunkera.

- Beste batzuen ustez, Sisberto eta D. Oppas gotzaia — Witiza'ren anaiak biak — izan omen ziran bi “egal” aien buruzagi izateko Errodrigo'k aukeratu zituanak.

- Errodrigo'ren gudarozteak ez zuan agintaritza bereizi bat bearrezkoa zuan egalik. Naikoa zuan Buruzagi bakar baten, ots, Errodrigo bakarraren agintaritza. Egiztutzen saiatuko naizenez, orduan Errodrigo'k berekin zuan “gudaroztea” oso txikia bait zan.

F): “Don Julián”. Ai baiña!,

- Iñork ez daki zorioneko D. Julian ura nor izan zan (Lévy--Provençal (o.c. 8).

- Ezta bere egiazko izenik ere: Julian?, Urbano?, Olian?, Yllan? Antziñako edestilari ezberdiñen idaztietan ezberdinki izendatua agertzen bait zaigu.

- Iñork ez daki nongoa zan. Nondikotasun geiegi eman zaio mirarizko D. Julian orri: Batzu-batzuen ustez Bisigota omen zan; beste batzuen ustez, Bisigotak azaldu aurretiko Espaiñ-Errromatar aien kastakoa. Bizantziotarra esango dizute beste batzuek, eta aurkituko dituzu Afrika bertako Berebertar aunditsu bat zala esango dizutenak ere.

- Iñork ez daki zer izan zan. Oraindik Bizantzio'rena zan Zeuta'ko **Eksarka** edo jaurlari militar Bizanziotarra? Tinjitani'ko, ots, Tanjer-aldeko **Konte** Bisigota? Toledo'tik Witiza Erregeak Tinjitani'n zergak zuzenki eratzera bidalitako **salerosle** bat? Bisigoten aurretiko ispaniarrren endako **Aitorreenseme aberats** aietako bat? Marok bertako iparraldean kristaua zan Gomeretarren leiñuko **Buruzagi** Berebertarra? Guzti ori bait dugu berari-buruz irakurria.

G): Oppas Gotzaia. Oni jaurti oi zaizkio Españi'ren jausketako errurik aundienak, bera izan omen zalako witizatarrak Errodrigo'ren aurka ipiñi zituana. Witizatarra omen zan bâ bera.

- Baña ori egia izatekotan, iñork ez daki Witiza'rekin zer aietasun izan zezakean. Batzuek aren anaia zala esango dizute. Beste batzuek, lengusua zala.

- Sebastian, —III Alfontso'ren Kronika idatzi zuan gotzaiak—, asmatu ere asmatu zigun Oppas gotzaiak Koba D'Onga'n, borroka asi aurretik, Pelayo'ri, errenditzeko eskatuz, musulmanen gudaroztetik zuzendu zion itzaldia.

- Baiñan Koba D'Onga'ko borroka bera, Amabirjiñaren agerpena ta guzti, ipui utsa dala dirudi.

H): Witizatarren iñozokeria. Errodrigo errege-aulkitik botatzen lagunduta, lapurreta batzuk egiñ ondorean Tarif bezala Afrika'ra itzuliko ziralako ustean lagundu omen zioten witizatarrak musulmanei. Baiña:

- Ez dakigu lagundu zietelako ori egia dan edo ez.

- Eta egia ba'litz ere, zenbateraiño lagundu zieten ez dakigu, eta beren laguntza arek zer eraginmen izan zezakean ere ez.

- Eta egia ba'liz ere, Tarif'en ibilketa ura, **ekintza gogorra go bati ekiñ aurretik**, Españi'n aurki zezaketan giroa ezagutzearen egindako ikerketa bat izan zala, errez jakin aal izan

zuten, arrezkero Afrika'n ikusi zezaketen urduritasunetik. Afrika'ra joanak omen ziran bâ musulmanekin tratu-gintzara.

- Bazekiten nolakoa izan zan musulmanen jardunkera ordurako arrapatu zituzten lurretan: lur aien Jaun da Jabe ta Errege egiten zirala.

- Bazekiten nolako egoera kaxkarrean gelditzen ziran kristauak. Ez noski agirian zigortuak. Bai ordea bigarren maillako laterkide biurtuak: ia-ia antziñako esklabutzara negargarriki jaurtiak.

- Egia da, musulmanak Españi'ren jabe egin ezkerero, aien laguntzaille biurtu zirala Witizarren artetiko aitorrenseme asko. Baita Witiza beraren aide asko ere. Baiñan orrek ez du esan nai aurretik Errodrigo menderatzeko gudan lagundu zietenik. Gauza bera egin bait zuten errodrigotarretatik geienak. Eta baita, Españi musulmanen eskuetara jausi ezkerero, espaiñ-erromar jatorriko aitorrensemek ere. Eta zer esanik ez erriak. Ia osoki egin bait zan maomatarra.

D): “La Cava” izeneko neskatxa. Egia esatekotan, bi izen izan zituan nekatx arek: Florinda eta Cava. Izanen zuan irugarren izen bat ere. Neska ura, kondairak sortutako ametsezko mamu bat ez baiña, ezur eta mami, egiazko gizaalaba izan ba'zan beintzat, bi izen aiek ez daitezke bere izenak izan: “Florinda” latiñezkoa ez baiña erromantzezkoa dalako. Eta “Cava”, izena ez baiña “emagaldua” esan nai duan gaitzizena bat baita, ezpairik gabe, kondaira sortu ezkerozkoa.

- Neska buru-ariñ ori da Españi'ren jausketako kondaira daren muiña. Julian'en alaba omen zan. Eta errege bisigotak larru-jotzen erabilli omen zualako, erregearen aurka al zuan guzia egiteko ziña egin omen zuan Julian'ek. Baiña:

- Ez dakigu lizunkereri ori non gertatu zan. Batzuen ustez Toledo'n. Beste batzuen ustez Sebilla'n.

- Era berdiñean, ez dakigu zein izan zan errege Bisigot larru-jotzaille ura. Batzuen ustez Errodrigo. Beste batzuen ustez Witiza.

* * *

Españi'ko ondamen miresgarriari arrazoi egoki eta sinesgarri zitekean bat emateko kondaira asko ta askoa asmatu ziran. Bai "La Cava" ren ipui onen aurretik bai ondoretik, baiñan au izan da edestia-zear edestilarien artean geiena erabilli dana.

Kondaira ori, eta orren aurretiko ta atzetiko guztiak, mozarabeen artean sortu omen ziran. Eta mozarabeengandik igaro omen ziran edestilari musulmanengana, eta auengandik —eta baita, agian, mozarabeengandik ere zuzenean— erreñu kristauetako edestilariengana. Mozarabeek ordea, batzuek witzatarrak eta besteak errodrigotarrak omen ziralako, itxura ezberdiña eman zioten "La Cava"ren kondaira orri.

"Sin duda existieron otras leyendas... pero sólo ésta sobrevivió, merced a la enorme grandeza histórica de la catástrofe, cuyo recuerdo disfrutó de actualidad durante los ocho siglos que en España duró la lucha de las dos religiones que aquí chocaron por primera vez en desastre del rey Rodrigo. Añádase a esto el profundo dramatismo de las pasiones que esta leyenda maneja, y se comprenderá que haya sido uno de los temas poéticos más tratados en todas las edades. En su relato trabajaron multitud de narradores musulmanes tanto en Andalucía como en Oriente, multitud de historiadores cristianos, multitud de poetas, novelistas y dramaturgos de España, Inglaterra, Alemania e Italia" (Menéndez Pidal: "Floresta de Leyendas Hipánicas", Madrid 1934. I liburua, 7^{gn.} orria).

Dakusazunez, Julian'ez eta bere alaba Cava'z eta onek errege batekin egindako gaiztakeriaz eta gaiztakeri orrek eta Julian'en jardunkerak Españi'ren erorketan izan zezakean era-

giñaz ari geranean, ez gabiltz EDESTIAREN alor legorrear, “LEYENDA” edo KONDAIREN lorategi olerkitsuan baizik.

Ikus nola damaigun Enrique Bagué’k (“La Alta Edad Media, Barcelona, 1953; 35-36) gaiztakeriaren berri:

“Según la versión rodriguista, en el palacio real de Sevilla se habló cierto día de hermosas mujeres y alguien ponderó la belleza de la hija de Julián, conde de Tinjitania. El rey Witiza, impresionado por estas palabras, se valió de un ardid para llevar a su corte a la hermosa doncella. Mandó llamar al padre, y mientras le entretenía con festines y banquetes, envió cartas a la condesa para que trajese cuanto antes a su hija a Sevilla. Tuvo el rey varios días en su poder a la doncella y la estupró, sin que el conde Julián se enterara de nada, hasta que la presencia en Sevilla de un escudero suyo que había dejado en Tánger le reveló el caso. Fingiendo no estar enterado, mandó el conde llamar a su esposa, se aseguró por ella del ultraje y ambos regresaron en secreto a Africa, abandonando a su hija”.

Alderantziz, witizatarrak izan omen ziran izorraketa aren errudun Errodrigo egin zutenak. Ikus nola:

“Según ellos, Rodrigo, capitán de los ejércitos de Witiza, desamparó a los tres hijos del rey y se apoderó del trono. Ya rey e instalado en el trono, Rodrigo se empeñó, contra el parecer de los obispos, en abrir el misterioso palacio cerrado por tantas cerraduras como reyes visigodos se habían sucedido, y en lugar de encontrar en él tesoros y riquezas, halló, según una versión, un arca que contenía unas figuras de árabes con el arco terciado a la espalda y el turbante en la cabeza y, según otra, un pergamino en el que había dibujados hombres parecidos (a los árabes) montados sobre briosos corceles con cimitarras, pendones y lanzas. En ambas el hallazgo iba acompañado de un letrado

en el que se anunciaba que cuando el palacio fuese abierto, hombres parecidos a aquellas figuras conquistarían el país⁴. Sigue la aventura de la hija del conde Julian, presentado en relato witizano como un simple mercader a quien el rey confiara una misión en Africa y en el musulmán como gobernador de Tánger y Ceuta (azpimarraketa, nereea). Confiada al rey durante la ausencia por el mercader Julián, o mandada al palacio para que el rey le asignara un esposo como era costumbre hacer con los hijos de los nobles, la hija de Julian fue deshonrada por el monarca, y descubierto el ultraje, el padre ofendido recogió a la hija se fue a Africa y propuso a Tarik o a Muza la conquista de España. Dueños los musulimes de la parte del Estrecho y trabada la batalla, Rodrigo es abandonado por los witizanos y desaparece, según dicen algunos en las aguas del Guadalete o en un lodazal”.

“Tal es el relato de la pérdida de España que, en esencia, pasó a los cristianos de norte y perpetuó la leyenda de Rodrigo libertino y de Julián traidor”. (Id.Ib).

Bada beste kondaira bat, guretzat bereiziki arduragarri da-na, bertan itxuraz euskalduna zan erregin bat aipatzen bait da. EGILONA, omen zan bâ erregiñ aren izena; ta, Egilona, izen euskalduna bait da.

Danadala, ez da aski ezaguna Errodrigo Errege Bisigota emakume euskaldun batekin ezkondata zegoanik. ¿Geroxeago I Fruela Asturietako Errege Bisigotari Araba'n gertatu zitzaiona gertatu ote zitzaion Naparroa'n Errodrigo'ri?

Ark, katigu artutako euskaldunen artean Munia izeneko “*puella (neska) vascona*” eder bat ikusi zuan, eta beretzat artu, neskaren edertasunaz unkiturik, ta, laister, “*puella vascona*” polit ura emazte ta Asturietako erregiñ biurtu.

⁴ *Jauregi miresgarri ori dagokion guztia, idazle arabitarrek witizatarren kondaira zarrari erantsitako ameskeria omen da.*

¿Errodrigo'k ere Naparroa'ren egoaldean Egilona izeneko neska atsegin bat ikusita, neska ura bere emazte ta Bisigoten erregiñ egin ote zuan?

Danadala, Egilona, alargundu zanean, musulman biurtuz gero, ABD-al-AZIZ, Españi musulmaneko lenen Jaurleriarekin ezkondu zan. Askotan aipatu dugun Musa-ben-Musayr aren semearekin.

Ez da emakume au edestilari aundiek aipatuegia izan baiñan egiazko emakumezkoztat dauka Menéndez Pidal'ek zuzendutako "Historia de España"k (l.c. 21 or.):

"Según varios historiadores, Abd-al-Aziz se casó con la viuda del rey Rodrigo. Los cronistas árabes llaman a princesa Ailo, y los españoles Egilona⁵. Desde luego se hizo musulmana y adoptó el nombre de Umm-Asim, "la madre de Adim"), apenas dió un hijo de este nombre a su nuevo esposo. Abd-al-Aziz residió con ella en Sevilla la mayor parte de su breve gobierno. Y fue en esta ciudad donde un tal Ziyad-ben-Udbra al-Balawi, por órdenes del califa Sulayman que creía a Abd-al-Aziz culpable de abuso de poder, asesinó a este último en marzo de 710 en la iglesia de Santa Rufina transformada en mezquita"⁶.

Beste modu batera damaigu gertakizun ori bera Enrique Bagué'k:

⁵ Egilona izen euskalduna da. "ON", "ONA", atzizki ezagunak ditugu. "EGI"k atzizki bezala "malda" esan nai du, gazteleraz "ladera", eta atzizki ez danean, norbaiten ustez, "txabola", "choza" gazteleraz.)Bai ote? "AILO"k ere badu euskal-itxura. "Ailon", "Mendi-Ailon", "Ailegi", Naparroa'n dagoz. Eta "Ailli" Laburdi'n. Ta "AIL"z eta "AI"z asten diran abizen eta toki-izenak ugari aurkituko dituzu Euskalerrria-zear.)Nork gorde ote zuan obeki erregiñ aren izena? arabitarrek? ala kristauek?

⁶ ¿Se hizo musulmana? Ez da ori esan aal izateko dokumenturik. Artu zuan izena ez da beintzat musulmana. Ez musulmana ez kristaua, erlijio-zentzu orotik yarea bait da.

“Figura destacada de este drama es también Eguilón, la propia esposa de Rodrigo. Abandonada y desvalida, después de la muerte del rey acaecida tal vez en la batalla de Guadalete o tal vez en circunstancia ulterior desconocida, casó con el hijo de Muza, Abdelaziz, que quedó como gobernador de España al ser llamado su padre a Damasco. Sábese que Eguilón ejerció gran influencia sobre su nuevo y enamorado esposo, al que incitó para que se declarase rey y se proclamase independiente y abrazase el cristianismo. De este modo Eguilón esperaba redimir a su patria del yugo musulmán. Es probable que para estos proyectos Abdelazid y Eguilón contasen entonces con los partidarios de Rodrigo, mientras los partidarios de Witiza figuraban en las filas del ambicioso Muza. Descubierta la intriga por una dama visigoda, probablemente witizana, Abdelaziz fue asesinado por los fervientes musulmanes y la interesante figura de Eguilón desaparece de la historia sin dejar rastro de su segunda viudedad” (l.c. 34).

* * *

Dakusgunez, gauzak gertatuz gero asmatutako ipui eta kon-dairetan datza orain arte eman diran Españi’ren jausketa lotsa-garria sinisgarri biurtzeko eman diran azalpen guztiak.

Mozarabeek asmatuak omen dira, baiñan ez dute gertaki-zun arrigarri ura zerbaitxo bat argitzeko balio ziurrik:

- “Julian”ek eta “La Cava”k mamu utsak geiago dirudite egiazko gizakumeak baiño;

- Oppas gotzaiaren ibillera, borroka-lekuan gudaroztearen egal baten buruzagi, Bisigoten Elizaren kanonen aurkakoa da Eliz orren Kontzilioak aztertzean ikusi genduan lez (ikus adibidez 546’ean ospatutako Ilerda (Lerida)’ko kontzilioaren I kano-na);

- eta Errodrigo’ren aurka Witiza’ren aideen gorrotoa, gertatu ba’zan ere –dokumentuetan egiztapenik ez bait du–, neurri-

oroz-gain izan zan ampatua. Txit egoki bait zetorkien kondaira sortzaillei anpaketa ori, sortu zuten kondaira oni egiaren itxura emateko.

*

Zillegi bekit Mozarabe aiek bizi ziran Kordoba'tik ez baiña nere Euskalerritik begira, gertakizun miresgarri ari beste azalpen emateko saiotxo bat egitea. Nere ustez Erreiñu Bisigota garaitu-eziña VIII mendean zearo ezabatua izate aren errua Arabitarrena ez baiña oso-osoan Euskaldunena bait da.

*

Aratza ta xumea da nere arrazoiketa:

- Iru gudarozte dira trajedi artan sarturik ibilli ziranak: Bisigota, Arabitarra, Euskalduna.

- 1. Bisigota. Naparroa'n dago. Errodrigo Erregea bera agintari duala, Euskaldunaren aurka borrokan ari da. ¿Zenbat gudariz osotua? Ez dakigu. 200.000, aipatu izan dan zenbakia dugu. Geitxo ote? Baleike. Baiñan edestilariek esan oi duten gauza da bisigoten gudarozteak orrenbeste gudari bildu zezazkeala: batez ere bereagintaritzan nagusia erregeak berak artzen zuanetan. Eta arretaz oroi bear dugu noski oraingo ontan erregea bera zuala buruzagi, eta Don Rodrigo'k, oraingo ontan, euskaldunei Uri Nagusia beinbetirako kendu nai izan ziela, orrela, beinbetirako baitare, kukildurik eta menderaturik gelditu zitezten.

- 2. Arabitarra. Tarik buruzagi duala, 12.000 gudariz osoturik, Andaluzi'ren egoaldean dago. Eta norbaitek, gertakizun orren berri Errodrigo Erregeari daramakio. Eta Errodrigo, iraduz, Euzkadi'tik Andaluzi'ra doa.

- 3. Euskalduna. Garaille ari da Iruña babesten.

Une artan, ordea, ¿ZER EGIN OTE ZUTEN gudarozte artako EUSKO-GUDARIEK?

Galde ori ez du oraindik iñork egin. Eta, orregaitik, galde ori erantzunik gabe gelditu da.

Baiñan, nere ustez, egin bearra zan galde orri ematen zaion erantzunean egon daiteke España'ko ondamenaren misterio osoa argitu dezakean giltza.

- Arabitarrek zer egin zuten badakigu: Errodrigo errez garaitu, eta, errezago oraindik eta mirarizko arintasunez, Bisigoten Erregetza lasto utsezkoa izan ballitz bezala ezereztu,

Orren errez, eta orren ariñ... ¿zergaitik?

ERRODRIGO ATZIPETU ZALAKO .

Entzun, nere ustez nola gertatu ziran gauzak:

* * *

- Erodrigo, gure asabei Iruña arrapatu naiean, "Baskoien" artean zegoan bere gudaroztearekin. Asarre noski, ezer lortzen ez zualako.

- Arabitarrak berriro Andaluzi'ra etorri ziralako albistea iritxi zitzaionean, ez zion albiste orri bear aiñako garrantzirik eman. Len ere gertatu izan bait ziran orrelako gauzak.

- Baiñan, oraingoan iritxitako itxas-lapur aiek bein betirako zentzatzea erabaki zuan.

- Ortarako, gudari-zaldun-talde txiki, ariñ, azkar-ibiltari bat artuta Andaluzi'runtz abiatu zan laisterka, itxas-lapur aien arazoa len-bait-len konponduta, al zuan azkarren Euskalerra menderatzearren Iruña'ra itzultzeko asmo sendoz.

- Ala, GUDAROTZE OSOA IRUÑA ESITZEN LAGA ZUAN.

- Izan ere,

- Orduan, egoaldeko itxas-lapur aiek porrokatzea baiño askoz garrantzi aundiagoko arazoa bait zan Erodrigo Errege Bisigotarrarentzat, bere iparreko euskaldun ezikaitz aiek anka-peratzea. Berak izan nai zuan, errege bisigota guztiek arroki—baiñan gezurretan— erabilli oi zuten "DOMUIT VASCONES" ura egiazki erabilli aal izan zezakeana!

Aipatu dugun lez eta E. Besga'k egoki dioskun bezala (op.c. 30), Errodrigo'rentzat nagusitasun geiagoko gauza bait zan orduan, *“terminar el conflicto con los vascones que la amenaza que él (entonces) podía intuir de la incursión de los musulmanes por Andalucía.*

Egia izan ote daiteke Errodrigo'k bere gudaroztea Iruña inguratzen utzi zuala? Ala dirudi iru argumentu, — logistikaren aldetikoa bata, edestiaren aldetikoa bestea eta psikologiaren aldetikoa irugarrena —, gogoan artzen ba'ditugu

1^a: Logistika, gudu bat —eta guduaren barruan borroka bat— asteko bearrezkoa dan guztiari dagokion guda-jakintza da; baita, adibidez, gudarozte batek ibiltzeko bear duan astiari dagokiona ere.

Bâ, eraman izen nai balu ere, Errodrigo'k ez zuan, Iruña'tik gudaroztea Andaluzi'ra eramateko bearrezkoa dan astirik izan.

Gudarozteak oso geldi ibiltzen ziran antziña artan. Oiñez, eta bear zuten oro zeramakiten idi-gurdien pausora.

Loreillaren lenengo egunctan legorreratu zan Tarik Jibral-tarr'en.

Izan zuan, agian, antxe bertan borroka bat, garaille: *“venció al sobrino del rey Rodrigo que había acudido a cerrarle el paso”* (Bagué, o.c. 32 or.). Borrokaldi ori, ekaiñaren asieran izanen zan, gutxienaz illabete bear bait zuan erregearen illoba arek, gertatu zana jakiteko, bere gudari taldea gertutzeko, eta talde arekin Gibraltarr'era iristeko. Oroi nola ibilli zan bâ, urte bete lenago Tarif ainbeste denbo luzez, **etsairik aurkitu gabe**, lasai.

Orduan noski, Ekaiñaren barruan dei egin zitzaion Errodrigo'ri. Dei orrek amar egun bear izango zituan Iruña'ra iristeko. Illabeteren bat gelditzen zitzaion Errodrigo'ri, Iruña'ren arresipetik irtenda, Uztaillaren 26'ean Barbate'ra — ¿Guadalete'ra? — iristeko, egun ortan izan bait zan Tarik'ek garaitua.

Baiña epe labur ortan ez daiteke, iñolaz ere, VIII mendeko gudarozte bat oiñez, bere intendentzi osoa idi-gurdiz zeramala, Iruña'tik Barbate'raiño iritxi.

Uztaillean, 26'ean ainzuzen, izan zan Tarik eta Errodrigo'ren arteko borroka. Baiñan, egun ortan, Errodrigo Gibraltarr'en alboan ez baiña Gaztelerriko Mantxa'n ibilliko zan oraindak, Iruña'ko arresipetik bere gudaroztearekin irten ba'litz

Edestilariak ez dute beiñere an zer gertatu zan zeazki jakin. Ez Errodrigo'ri zer gertatu zitzaion, ez borroka bera non izan zan: Guadalete'n? Barbate'n?

Eta, Errodrigo bera ¿borroka artan il ote zan? An il ba'zan, ¿nola ill zan?, ezpataz?, batzuek dioten bezala, Barbate ibaiaren urean itota? uretan ez baiño lokatzetan? Guadalete ibaieko lokatzetan?, au bait dugu beste batzuen aburua!

An ill ez ba'zan ¿zer ibillera izan zuan gero?... Ezer ez, gauza eskierrik, edestilarien idazkietan. Arrazoi du Espasa iztegiak: *"De lo allí ocurrido no se sabe nada"*.

*

Edestiaren utsune ori, anitz kondairek bete digute. Eta SOILKI KONDAIRA OIETAN dago oiñarriturik gero Edestiak esango digun GUZTIA.

Kondairek ordea, goraxeago azaldu ditugun kondaira aiek, eta aiengandik jaiotako edestiek, ez dute borrokaldi artako, eta musulmanen ondorengo garaitza orokorraren misteriorik argitzeko, gaitasunik.

Iñor ez da oroitu eginkizun aietan beste gudarozte bat ere eskudun izan zala: EUSKO-GUDARÓZTEA!

Arritzekoa da, baiñan ez da iñor eusko-gudarozteaz oroitu. Eta, jakiña, ez du iñork eusko-gudariak orduan zer egin ote zuten jakiteko, batere nekerik artu. Saia gaitezen gu.

*

- Errodrigo'k Iruña inguratzen laga zuan gudaroztea, txorabiatu-rik gelditu zan Barbate'ko ondamenaren berri jakin zuanean:

- Oartu zan an gertatuak izugarrizko garrantzia zuala Erreiñu Bisigotiarrantzat:

- eta gertakizun arri aurre egiteko, lendabiziko gauza, beste ororen gaindik errege berri bat aukeratu bearra zuala;

- eta errege berriak, beste arazo guztiak gerorako utziz, aurreneko gauza egoaldetik zetorren arrisku ari aurka egitea izango zuala;

- Ta errege berri ori len-bait-len aukeratzeko, al izan zuan laisterren, Toledo'rako bidea artu zuan. Jakiña bait da, bisigoten erreinuan, erregearen aukeraketarako beso indartsua izan zuala gudarozteak. Militarrak izaten bait ziran bisigoten errege beraiek, eta militarrak baitare erregea aukeratzen zuten Jaun aundikiak.

- Eta guzti ori azkar egin bear zan lana izaki-ta, soilki bearbearrezkoa zuana bakarrik berekin artuz, ain arin ibilli zan bisigoten gudaroztea, eta ain urduri asi bait zan egoalderako bidea-zear Iruña'tik urruntzen!..., benetan zirudian kemen oro galdua Iruña'tik igesi zijoala.

- Uriko arresien gaiñetik, eta Iruña'ren inguruko mendietatik ikusi zuten ori eusko-gudariak.

- Oartu ziran iru mendez etsai ankerra izan zuten gudarozte ura kukildurik, egoaldetik iritxi zitzaizkion berri latzek zapal-
durik, moteldurik, izpiriturik gabe, bere burua babesteko ere kemenik eta ia-ia gogorik gabe zijoala.

- Ikusi zuten, iru mendez gero une ura izanen zuala Euskalerrriak bisigoten Erreiñu biotz guztiz gorrotatuari ondo irabazia zuan ikaragarrizko ordaiña emateko garaia.

- Ta ezkerretik eta eskubitik gogor eraso zioten atsedenek emateke, gauez eta egunez, bidaldi guzian; eta Iruña ta Garray⁷

⁷ Garray?, Garay? Erromatarrek trakesturik ibilli ziran beti gure "R" ta "RR" izkien doiñua idazterakoan.)Euskaldunen ezpaiñetatik bi izki oien doiñuen bitarteko beste doiñu bereizi bat entzuten zutelako ote?

(gaurko Soria) bitartean zearo porrokaturik utzi zuten sekulan iñork garaitu ez zuan Bisigoten Gudarozte Beti Garaillea.

Ederki damaigu antziñate zarreko liburu txit ezagun batek, "Silos'ko Kronikak" ainzuzen, eusko-gudarozteak borrokarako erabilli oi zuan taktika orren berri, euskaldunen eta moroen arteko gudateaz ari dala. Taktika ori bera erabilli bait zuten gure gudari zar aiek beti!, eta, ¿nola ez?, baita, bisigoten aurkako azken-borroka ikaragarri artan igesi bezala zijoan gudarozte ari amorruez beterik ekin ziotenean ere:

"Los cántabros, (el autor llama así a los navarros), curtidos por el frío y el trabajo, y ligeramente armados, atravesando los collados y frondosos bosques y serpeando de improviso hacia los campamentos de los enemigos sin que éstos se dieran cuenta, los destrozaban con frecuencia. Y este modo de guerrear jamás pudo ser vengado, porque los cántabros, ágiles y ligeros, se diseminaban por varios puntos según las circunstancias. De esta suerte la furia de los moros, tan temible para otros, servía de juguete a los cántabros". (Lateratik gaztelerarako itzulpena, eta argitalpena, Justo Pérez de Urbel eta A. Gozález'ena. Madrid, 1959. pag. 177)⁸.

So egiozu irudimenaren begiz, egotik iritxi zitzaizkion albis-teek kukildurik, etorkizuneko arriskuen bildurrez izpirituz lur-jota, bere tresnedirik geiena bidean utziz, igesi bezala Arga ibaiaren ibarra-beera egoruntz itun dijoan bisigoten gudarozte kupidagarriari.

⁸ Ona emen ori bera Siles'ko lumalari zaar arek lateraz idatzi zuan bezala: "*Ad hoc Cantabri algoris & laborum pro loco et necessitudine utcumque patientes, & arreptis levioribus armis, pro colles & opaca sylvarum loca, pedientes, serpientes ex improviso castra hostium, dum aderant invadendo, saepe conturbabant. Neque hujusmodi factum ab hostibus vindicari numquam poterat, quia Cantabri succinti et leves, statim ut res postulabat, in diversa rapiabantur. Itaque Maurorum rabies, quae aliis formidolosa erat, Cantabris ludibrio habebatur*" ("Chronia Silense", 74. Florez'en "España Sagrada"n, XVII, 312).

Eta so egiozu orain, bere taktika erabilliz gudarozte aren gaiñera dijoan eusko-gudarozteari. Oiñezkoek, ots, eusko-infanteri ariñak, erromateko edestilariak aintzatutako “leves vascones” aiek, atzetik, ezkerretik, eskubitik, gaut’egun, gelditzeke, ez gauzez ez egunez arerioari atsedetik emateke erasoka, eta zaldizkoek, naitanaiez ugaria izan bear zuala beste nonbait esan dugun eusko-zaldundiko gudariak, aurrea artuta bidea gure mendietako pottoka laisterkari bizkorren gaiñetik eusko galtzairuzko azta edo lantza zorrotzez bidea erioarri biurtuz, eta, berriro sarritan atzeruntz itzulita, gaur emen eta ¿biar non?, or?, an?, saiets batetik orain, bestetik bereala, etsaien gaiñera auek gutxien uste zuten aldetik, gutxien pentsa zezaketen tokietan, eta gutxien itzaroten zuten unean ekaitz erioarriaren antzera jausiz.

Ta, ori, zenbat egunez? Amabost? Ogei? Illabetez...?

Areriorik gabe aurkitzen bait zan gaiñera eusko-zaldundia, bisigotena, ia dana, Errodrigo’k berekin Barbate’ko ondamentira eraman zualako.

Ala, arabitarrek Gibraltar’tik Ispani osora zabaldu ziranean, beraiek diotenez, ez omen zuten bisigoten gudarozterik aurrean aurkitu. Ez, noski, arritzeko gauza. Gudarozte artako gudariak, iges egitea lortu zuten pittinak izan ezik, gorputz bait zeuden ordurako, Iruña’tik Garray’rako bidean.

Bazan bâ eusko-gudaroztea ortarako eta geiagorako gauza.

Oroi ia iru mende luzez, egoan Bisigoten eta iparrean frankiarren aurka ia-ia gelditzeke gudan ari bearrean aurkitu zala. Eta ori ez dala egiten:

- Gudari talde egoki bikain bat osotzeko bearrezkoa dan biztanle-talde ugari bat gabe, arerioen gudarozte bi aiek gudariz txit ugariak bait ziran.

- Buruzagi yayorik gabe, orduango gudarozterik ongien presatuak eta zuzenduak bait ziran, urte batean bai eta bestean ere bai, iparretik eta egotik aurka zetorzkien bi gudarozte aiek.

- Intendentzi bikaiñik gabe. Orduango balak, geziak ziran. Borrokaldi batean gaur jaurti oi diran balak, millaka ta millaka izaten dira. Berdin orduan geziak. Gezi aiek danak euskaldunek egiñak ziran, ortarako bearrezkoa zuten guztiarekin: burni-meatzak, meatzariak, olagizon yayoak, eta abar eta abar. Suebiar, bisigot, frankiar etsaiez inguraturik zeudelako, (ez bait zezaketen atzerritik deus ekarri!;

- Ezta, gezi oiek eta intendentziari dagokion guzia gudateetan Euskalerra zar aren egotik iparrera eta askotan bereala iparretik egora ariñ eta azkar eramateko, bide egoki, zaldi ta mando ugari eta bear aiña idi ta gurdirik gabe.

- Telegrafi artetsu bat ere bearrezkoa zuten: aran eta base-ri ugarietan bizi ziran gudariak toki jakiñetara azkar biltzeko eta azkenean danekin azkar gudarozte bat osotzeko, bearrezkoa zuten euskaldunek mezu-urrun-emaille bat: ¿mendieta-ko sugalda?

- Gizarteari dagokionez, erakunde edo organizazio bikain bat. Euskalerra edestira ANFIKTIONI bat bezala agertu ziztaigun⁹.

Eusko-Anfiktioni artan ¿zerk — edo nork — ote zuan aginte nagusia? Ez dakigu. Anfiktioni aren barrungo bizitzaz ezer ez bait dakigu.

Baiñan Euskalerra ura erakunde sendo bizkor indartsu eta gogor bat izan ez ba'litz, ez zan ainbeste mendez alako etsaien aurka, garaille irtetzeko gai izango.

Eta ez bezait iñork esan “bat-bateko esku-kolpe” batzuk besterik ez zirala suebiarren, frankiarren, eta bisigoten eta gero, auen orde, arabitarren erasoak. Ori, frankiarren, bisigoten eta arabitarren edestilariek diotenaren aurka bait dator.

⁹ Anfiktioni, naiz Erri batekoak izateaz pozik eta arro sentitu, Laterri bat eratu gabe bizi diran “tribu” edo leiñuen alkartasunari esaten zaio. Anfiktioni bat osotzen zuten Israel'ko 12 leiñuek, Saul errege aukeratu zuten arte. Anfiktioni bat ziran Grezi zarreko uri-laterriak ere.

Gudarozte aundiak izan ziran Euskaldunen aurka etortzen ziranak; gudaibururik onenen, eta askotan Errege beraien zuzendaritzapean.

* * *

Bazuten, beraz, euskaldunek, Iruña'tik urrunduz itun, kukildurik eta sikologiz lur-jota, iraduz zijoan gudarozte bisigot ura ezerezteko gaitasunik aski. Eta baita geiagorako ere! Ez zitzaien gaiñera, igesi bezala ikusten zuten gudarozte ura desgiteko arrazoirik (eta gogorik! peitzen. Eta zailtasun aundirik gabe lortu zuten ain gogoko zutena.

Eusko-gudarozteia izan zan gudarozte bisigotiarra desegin zuana.

Euskaldunok gera musulmanek España'ren jabe ain aisa egiñ izatearen errudun bakarrak. Gure asabak izan bait ziran España arabitarren eskuetan ipiñi zutenak.

- ¿Ori uste utsa besterik ez dala?

- Bai. Orrela da. Baiña uste utsak dira edestilari españiarrek asmatu ta aurkeztu dituzten pitxikeri guztiak ere.

Eta nere uste au, aien uste guztiak bezain sinisgarria da. Baita aienak baiño sinesgarriagoa ere.

*

¿Ez bekit iñork edestilariek zergaitik ez diran, eusko-gudarozte batek gertakizun aietan zer-ikusirik izan zezakeanez oroitu?

Zer edestilariek? Arabitarrek? Auek ez dira gauzak gertatu ziran unekoak, geroagokoak baizik, eta une artako Euskalerriaz ez zuten ezertxo ere jakin.

Españiarrek? Frantziarrek? Euskaldunei-buruz espñiarren eta frankiarren burua nola eraturik egon dan ezagutzea naikoa

da, eusko-gudarozte batek trajedi artan zer ikusirik izan zeza-keala pentsatze utserako ere gai ezin izan daitezkeala jakiteko.

Españi'ko eta Frantzi'ko edestilarienzat Euskalerrria gauza txikerra izan da. Batere garrantzirik gabea.

Españiarrentza Erreiñu Bisigota Españi izan dalarik —eta gaur bertan ere dalarik—, lotsagarrikeri jasan eziña eta pentsa eziña bait litzake Españi Euskalerrriak ain orokorki ondatu zuala sinistu bearra. Arabitarren gudarozte oro menderatzaille arek ondatu zuala, bedi. Baiña ¿eusko-gudarozte nimiño batek? ori pentsatu ere ez!!!

Berdin Frantziarrentzat. Eta hereala izango dugu esaten ari naizenaren egiztapena. Laister, Guadalortze'ko borrokaldiaren mende berean beste borrokaldi ospetsu bat izan bait zan Orreaga'n. Borrokaldi ortan eusko-gudarozteak Karlomagno ta ordurarte eta orduz-gero baztar guztietan beti garaille ibilli zan "La France"ko Erregerik aundien aren gudaroztea menderatu zuan. Jasan ez daiteken lotsagarrikeria.

Orregaitik, naiz euskaldunen garaitza aurreneko edestilariiek negarrez aitortu, laister trakestu zuten ondorengoek Orreaga'n gertatua. Ez omen ziran euskaldunak izan Karlomagno Kristaudiko Inperatore frantziarra garaitu zutenak, artean oro garaituz zetozen musulmanak baizik.

Ori, naiz oso mingarria bai, ez bait zitzaien ain lotsagarria iruditzen.

Latiegi'tar Bixente
Euskerazaintzakoa